

Bila dabilenak beti aurkitzen du zer edo zer. Jakina, danok ez gara gauza berdinen bila ibiltzen. Horregaitik gure asmoa, material hauek ahalik osoen eta garbien agertzea da.

Asmo hau betetzen badugu, pozik izango gara.

Donostia, 75-II-28

ATARRABI APEZA ETA PEDRO DE ATARRABIA

A. Alustiza "Aztiri"

I

Oraintsu, Pedro de Atarrabia deritzaion pentsalari eta teologilari ospetsu baten eskola-iskribuak argitara eman ditu Aita Sagüés Azcona-k; bi ale mardul eta gotorretan bildua dator dena.

Lan ikaragarria, benetan, egileak egin zuena, eta ez da txantxetakoa gure biltzaile azkarrak ondotik egin duena ere.

Esan gabe doa, nik ez dutala "DOCTOR FUNDATUS" deritzaion Maisu honen pentsakera eta doktrina hemen, aztertzeko asmorik, ezta ahalmenik ere. Geure Aita Tomas Larrañaga zerbait, bederen, mintzatu zaigu hortaz.

Nik, ordea, Aita Sagüés-ek Pedro de Atarrabia honen inguruan ematen dizkigun zenbait berri ekarri nahi nituzke "Aránzazu" hontara, gure irakurleentzat ere jakingarri ezezik, suspergarri izan daitezkeelakoan. Geroago aitortuko dugu zergatik.

Pedro de Atarrabia, frantziskotar ospetsu hau, Naparroan eta Iruine ondoko Atarrabia deritzaion Villavako hauzo batean jaioa zen, dirudienez, eta XIII. gizaaldiaren erdi aldera

edo, uste dutenez. Pariseko Unibersitatean ikasiko zuen seguru aski. 1317-tik 1320-ra bitarte hortan Aragoi Probintziko Frantziskotarren Nagusi bezala bilatzen dugu bera; Naparroako erresuma ere Aragoiko Probintzi horren barruan bait zegoen garai haietan.

Geroago, berriz ere, bere eskuetan izandu zuen Nagusitza hori, eta garai nahastuetan, gainera. Barcelonako Unibersitatean izango zuen seguru aski bere maisutzaren aulkia, eta gaurko bere liburu hauek orduko eskola jardunaren fruitu umatu bat izan daitezkeela uste dute askok.

Bere bizitzaren azkeneko hogei urteetan, berriz, Naparroa zaharrean bizi izandu zen, eta erregeen zerbitzu berezi eta pisu handikoetan sartuta, gainera: bizi-sari ofizial bat ere jasotzen zuela esan besterik ez dago.

1346 edo 1347an hil zen seguru aski.

Ikusten duzutenez, frantziskotar ospetsu honen bizitza eta lanak nahikoa ilunpean gelditzen zaizkigu oraindik.

Hala ere, Pedro de Atarrabia delako honen deitura lehen-dabizikoz entzun nuenean, beste apez azkar eta jakintsu batekin oroitu nintzen ni bertatik.

Izan ere, bada gure folklore zaharrean Atarrabi izeneko apez bat; Atarrabio edo Ondarrabio ere deitzen zaio beste zenbait tokitan. Sara deritzaion herriko leze batetan deabruak eskolatua izandu omen zen bera.

Toledo eta Salamanca inguruetan ere, jendearen ustez, bai omen ziren horrelako koba-zuloak, eta deabrua bera maisu zutelarik, aztigaiak, edo "artes mágicas" zeritzaienak ikasten omen zituzten polliki asko.

Dena den, gure Atarrabi Sarako leze batetan bilatzen dugu gure folklore zaharrean, eta beste bi anaiekin gainera: Arruit eta don Juan; Axular-en izena ere azaltzen da batzuetan Arruit-en ordez.

Deabruak eskolatu omen zituen. Ederki eskolatu ere. Baina lezetik atera baino lehen, han bertan, eta deabruaren meneko gelditu beharra zuen norbaitek. Eta ez zegoen ihes egiterik, deabrua beti gainean eta galdezka zutelako:

—Atarrabi, nun haiz?, galdetzen omen zuen deabruak, Elduaien aldetik kontatzen zutenez.

— Hemen nago, erantzun behar zuen beti.

Baina Atarrabi hau arrunt abila omen zen eta bere zape-lari mintzarazten erakutsi omen zion.

Eta behin deabrua solasean, beste aldera begira zegoelarik, utzi txapelaren gain deabruari errepuestak ematea eta hirurak atera omen ziren lezetik.

Deabrua ohartu omen zen; baina orduko urrun joanak izaki. Deabruak tiratu omen zien burdin-gantxo bat atzetik eta Atarrabiri zapata takoina eta itzala kendu.

Geroztik, zapata takoina eman arren, beti faltatzen omen zitzaion.

Gero hirurak apez egin omen ziren. Eta abildade aparte-koak omen zituzten hirurek. Baina Atarrabiri itzala falta beti.

Denborarekin zahartu zen apez hori. Eta hiltzeko bildur omen zen, deabruak itzala ostu zionetik beretzat beti izateko bait zeukan bera. Mezako konsagraziokoan bakarrik etortzen omen zitzaion itzala. Eta esan omen zion sakristauari hiltzeko bera, meza denboran, komuniatuta berehala. Sakristaua bildurtu omen zen lehendabiziko egunean, eta ez omen zuen hil. Baina Atarrabik hiltzeko eta hiltzeko, esaten omen zion; eta biharamonean hil omen zuen.

Eta Atarrabi honek esan omen zion sakristauari, hil ondoan haren bihotza aga baten puntan emateko. Beleak eramaten bazuen bihotz hura, ifernuan izango zela; pikak eramaten bazuen, purgatorioan izango zela, eta mezak egiteko. Eta usoak eramaten bazuen, zeruan izango zela.

Egin omen zuten Atarrabioren esana. Bela etorri, inguruka inguruka ibili, baina ez eraman. Pika etorri, ibili hura ere inguruka, ukitu ere bai; baina ez eraman. Usoa etorri, eta harek eraman Atarrabioren bihotza. Atarrabio orain zeruan dago (J. M. Barandiaran, Obras Completas, Eusko-Folklore, 440).

Eta hauxe da idazlantxo ontan nik galdetu nahi nukeena; gure folklore zaharreko Atarrabi honek eta Erdi Aroko Pedro de Atarrabia delako jakintsu haundi harek ba ote daukate elkarrekin zer ikusirik?

Badakigu, eta aristian aipatzen genduan, Axular ospetsuaren izena folklorea kokatua gelditu dela betiko. Izan ere, herriaren ustetan, jakinduri apartekoa zuen gure Axular-ek. Eta ez zuten arrazoi faltik! *Gero* delako liburu harrigarria

hortxe daukagu lekuko. Eta herriak Atarrabi apezaren istoria ezarri dio Axular-i ere.

Pedro de Atarrabia delako pentsalariak ere bazuen jakinduria, saltzeko, beste. Euskara ere bazekian seguru aski, Villava eta Atarrabia ezezik, Iruine eta Naparroako erresumarik gehienak ere euskaldun baitziren garai haietan. Ez dakigu zenbaterainoko hartu emanak izango zituen Naparroako herri xeharekin. Baina azken hogeitaz urte luzetan, behintzat, Naparroan bizi izandu zen; eta Naparroako erregeen zerbitzu berezietan ibili zenez gero, aukera ederrik izan zitezkeen herriarekin ere hartu emanak edukitzeko.

Eta gure herriak, bere jakinduraz txunditurik edo, Axular bezalaxe, folklore mailaraino jaso ote zuen ondotik? Iruine inguruko herrixkak aztertzea on litzateke aztarren zerbait utzi duen jakiteko edo.

Dena den, gure folklore zaharreko Atarrabi apeza, eta historiak gor-aipatzen duen Pedro de Atarrabia delakoa, izenari gagozkiolarik, berdinak direla ematen du; izatez ere holaxe ote ziren, ez jakin.

(1) "Doctoris Fundati Petri de Atarrabia sive de Navarra, OFM., IN PRIMUM SENTENTIARUM SCRIPTUM, quod ad fidem codicum manusccriptorum critice edidit Dr. PIUS SAGUES AZCONA, OFM."; Consejo Superior de Investigaciones Científicas, 1.184 páginas, 2 vols.; Bibliotheca Theologica Hispana, 1974.

ETIENNE LAPEYRE

1840-1893

P. Lafitte

Lerro hauetan nai nituzke idazle hortaz han hemenka erran izan diren berriak nuzendu eta osatu, hein batean bederen.

Hasteko, zenbaitek Xalbat Arotzarena kalonjearen nota batzuetarik atera dute *Credo* liburua Martin Lapeyre, Aita Damien beneditanoaren obra zela. Bainan liburuak berak argitzen gaitu, "Et. Lapeyre aphezak egina" dakarkelarik.